

GIL 95 Kiputzeko Kuaternarioko aztarnategia



Kiputz-eko bisonte-garezurraren berregitea.

Nola iritsi


Ez dugu kokapenaren berri emango, espoliazio arriskua duelako.

Ateratako material gehiena UPV-EHU/Aranzadiren GEO-Q laborategian dago, eta Eusko Jaurlaritzaren material arkeologiko eta paleontologikoen gordetegian (Intxaurren).

GI Laren deskribapen laburra

Kiputzeko aztarnategia Arno mendiaren ekialdean dago. Barrunbe karstiko bat da, Behe Kretazeoko kareharri urgondarretan eratua. Leize-zulo honek 6 metro inguruko sakonera du, eta, azken glaziazio-maximoan, tranpa natural gisa jokatu zuen duela 20.000 eta 15.000 urte bitarteko fauna kuaternarioarentzat.

Sedimentuzko betegarri bat du, 4,5 metroko sakonera duena, eta hainbat geruzaren nahasketa, buztina, kareharria eta bertako hormetatik eroritako bloke-bretxak. Leizea 2002an deskubritu zen, eta, hainbat indusketaldiren ondoren, Goi Pleistozenoko ugaz-



Kiputz IX aztarnategiko ebaketa estratigrafikoa.

tun-hezurren Kantaurokoko kontzentrazioarik handienetako bat ateratzea lortu da. Handik 13.000 hezur baino gehiago atera dira, eta haien bidez baieztatu ahal izan da 48 orein, 23 elur-orein eta 18 bisonte pasatu zirela handik. Hain zuzen, estepako bisonte heldu batek, 900 kilo ingurukoak, adibide fosil ikusgarriena utzi digu: garezur ikaragarri bat, 90 cm-ko zabalera, penintsulan osorik kontserbatu den bakarra.

Lurzorua alkalinoa da, jatorri karstikokoa, eta horrek lagundu du hezurak ondo kontserbatzen. Garai bereko aztarnategi gehienetan ez bezala, Kiputzen ez dago giza jardueraren aztarnarik bat ere. Beraz, leizean kontserbatu den faunak ikaragarriko balioa du garai hartan inguruko ekosisteman bizi ziren espezieen lagin adierazgarri gisa.

Behatzeko punturik onena

Eusko Jaurlaritzaren material arkeologiko eta paleontologikoen gordetegia. In-txaurren.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 60, GIL 23, GIL 25, GIL 23, GIL 119, GIL 127.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 128.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				●
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Gaur egun, garezurra Eusko Jaurlaritzaren material arkeologiko eta paleontologikoen gordetegian dago (Intxaurren).				

Bibliografia espezifikoa

- Castaños J et. al. "Estudio osteométrico preliminar de los restos de ciervo (*Cervus elaphus*) del yacimiento paleontológico del Pleistoceno Superior de Kiputz IX (Mutriku, Gipuzkoa)". Geogaceta, 40. 2006. 163-166.